

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Tomas Abarrategi Goikoetxea Tomas
basoko*

*Berango,
Bizkaia (1947)*

Aurkibidea



Biografia



1947an jaio zen Berangoko Sustatxa auzoko Basoeta baserrian. Gurasoak Goierrikoak ziren, Ama Azkorrosko baserrikoa eta Aita Kristobalenekoa. Ezkondu ostean, Berangoko Sustatxazarra baserrira etorri ziren errentan bizitzen. Inguruan lursail asko erosi zituzten eta bertan, Basoeta baserria altxatu zuten bertako haritzekin. Lau neba-arrebatan gazteeena izan zen eta etxean asko lagundu behar izan zuenez, urte gutxi egin zituen eskolan. Gerora, gaueko eskolan pare bat urte egin zituen soldaduzkara joan aurretik. Berangoko lantegi batean urte batzuk egin ostean, Ameriketara lan bila joan zen eta 25 urte zituela, diru apur bat zuela, Berangora itzuli eta harategi bat zabaldu zuen bertan. Bi seme-alaba izan zituzten eta gurasoak nagusiak zirenean haiek zaintzeko, bera eta bere arreba, familia osoarekin bueltatu ziren Basoetara.

Zintak

BGO-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-10-16
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

BGO-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-10-16
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. "Basoko" goitizena

- **Erref:** BGO-004/002
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:01:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Tomas bat baino gehiago daude Berangon, eta mendi aldean bizi denez, Tomas "basoko" deitzen diote. Bide bazterreko zuhaitzak moztu gabe daudenez, baso antza du Tomasen etxerako bide inguruak.

2. Esaera: Ai marti, marti, kakazu, narruek lepoan eta arranak kolkoan

- **Erref:** BGO-004/004
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:02:44. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Aitak esaten zuen: "Ai marti, marti, kakazu (kakatsu), narruek lepoan eta arranak kolkoan". Martxoari eta hildako ardiei buruz ari zen aita.

3. Berango hondartzarik gabe geratu

- **Erref:** BGO-004/005
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Baserriaren izena: Basoeta. Berangoko auzoei eta mugei buruz hitz egiten du. Berangok, berez badu hondartza, baina baten batzuen arteko traturen baten ondorioz galdu zuen.

4. Herritik baserrira, gurasoengana

- **Erref:** BGO-004/006
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:09:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak Goierrikoak ziren eta Sustatxa Zaharra baserrira ezkondu ziren. Gero, lurrak erosi eta Basoeta etxea eraiki zuten; bertako haritzak erabili zituzten. Tomas herrira ezkondu zen, baina hamar urte han eginda Basoetara joan ziren bizitzera. Lau neba-arrebaren artean gazteena da.

5. Esnea saltzera astoz, gurdiz eta autoz

- **Erref:** BGO-004/007
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:09:19. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Aita Negurira joaten zen esnea saltzera astoekin. Geroago, zaldiarekin eta gurdiaekin. 130 litro esne inguru egunero izateko orain baino behi gehiago behar ziren. Behiak gaixotuta, aita harrobian aritu zen lanean berriz behiak jarri arte. Arrebak banatu zituen esneak azken urteetan, autoz.

6. Ardiak eta behiak

- **Erref:** BGO-004/008
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:13:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Gurasoek ardiak ere izan zituzten, eta 80ren bat ardi eta behi batzuekin ateratzen zuten bizimodua; gogorra, baina euren gustukoa.

7. Gerrako presoa, trintxerak eta bideak egiten

- **Erref:** BGO-004/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:13:27. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita nazionalistekin ibili zen gerran eta Francoren aldekoek preso hartu zuten. Hiru urtean aritu zen preso lanean: Picos de European eta Castellón de La Planan. Zahartzaroan itzuli nahi izan zuen Castellonera; dena aldatuta aurkitu zuen.</p>

Transkripzioa

-Gerran, gure aita, ba ordun koixi eben hamen nazionalistakaz; ta gero ba urte asko egon zan, hiru edo, hiru urte edo holan, prisioneru egon zan.
-Non egon zan?

–Bai, bidiek eta, Francogaz prisioneru; Franco..., bidek eta eiten beharren.

–Non?

–Lehelau, lehelau egon zan Picos de Europan, ta gero handik... Picos de Europan trintxerak eiten, avanzadillatarako. Eta gero Castellón de La Planan bidek eiten eroan [ebezan] hara. Ez dakit. Ze gero bera, zahartegin, ba, beti gure ixen /guxen/ dau ikusi ha. Eta geuk ein otseun /eiotseun/ bieja bat prepara aita-amari eta joan den ikusten hara, baie ez euen ezebe ezetu ta triste etorri zan. Ze esaten [euen]: “Castellon de la Planan, dana mahatsa ta ene, zelakoa ta...!” eta joan zanen ez euen ikusi holakorik, ta kanbiata duzti. Klaro, berrogei urte beranduau, ta dana kanbiate da.

8. Pinuak landatu ziren larreetan

- **Erref:** BGO-004/010
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:14:34. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Gerra ostean lege bat atera zuen Francok basogintza suspertzeko. Artea (artaldea) kendu eta behiak utzi zituen aita. Osabak, aldiz, San Salvador del Vallera eraman zituen ardiak.

9. Garia erein, ogi faltarik ez izateko

- **Erref:** BGO-004/011
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:15:53. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ettxerako txerriak hasten ziren, eta koipea erabiltzen zen olioaren orde. Tomas umea zela, ogiaren errazionamendua egon zen; aita lurrak errentan hartu eta garia erein zuen. Horrela zuten nahi beste ogi. Amak egiten zuen ogia.

10. Zortzi eguneko elurtea martxoan

- **Erref:** BGO-004/012
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Lehen orain baino elur gehiago egiten zuen; Tomas ikusita dago zortzi

eguneko elurtea martxoan. Aldapan behera astoari ondo eutsi beharra zegoen holakoetan, irrist egin eta esne guztia gal ez zedin.

11. Ogia zelan egin

- **Erref:** BGO-004/014
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:21:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Errotara garia eraman eta 50 kiloko, bost errotariarentzako. Tomasen amak honela egiten zuen ogia: suaren kontra egiten zen epeletan, ur epelari legamia nahasi, irinarekin eta urarekin bola bat egin. Ontzi batean jarri estalita igo arte eta berriz landu, hiru aldiz. Gero labera sartu eta ordu erdi inguruan egiten da.</p>

Transkripzioa

-Zelan eiten eban ogia?

-Bueno, iho, urune eiteko eroaten zan errotara. Errotarik, hori badekot memorin, pentsaten dot berrogeta hamar kilotik bost kobraten euen berantzako; ez zan dirurik ez, bost kilo, ahun kilotik hamar. Bueno, ba, gero ekarten da etzera ta eiten da, imiten da suen kontra, epeletan egon daiten, eiten da, etxaten jako ur, ur epela, eta eiten da ha nahasta, eskuegaz nahasta-nahasta. Eiten da bola bat, ta ein behar da ureri lebadure. Pentsaten dot etxaten jakola ureri, bai ureri pentsaten dot. Bueno, auskeraz ez dakit uzena, baie bueno, lebadure. Eiten da, ein eta ein ta bajatu, ixiten da, imiten da [...] o bien kazuela baten imiten da ta tapaten da zeraATEGAZ, trapuATEGAZ. Ixiten dalako bost minutu edo holan; ta eiten dau gora altza. Ta altzaten danien barriz bajaten da. Hiru bider eiten da. Hirugarrenen bajaten danen, sartzen da bandeja baten eta sartzen da labara. Laban eiten da ordu erdi ingeru, eiten da eta urteten dau ogiek einde. Hiru bidar altza behar dau, e... Hirugarrenen bajaten dotsanen, ixiten dotso, imiten dau bandeja, urun apurtxu bet imiten da azpitik ez daiden agarra, eta imiten da ganen eta gero sartzen da labara ez daiden agarra bandejie. Ta ia urteten dau gero, ordu erdi barru, ogiek einde.

12. Azken errotak

- **Erref:** BGO-004/015
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Errota asko egon ziren Berangon. Urak mugitzen zituen errotak lehenago, gero elektrizitateak. Errotarako ura batzeari "uetu" esaten dio. Larraurin geratzen da urarekin dabilen errota bat. Bi mutilzaharrena denez, ez du jarraipenik izango.

13. Eskola gutxi eta baserrian lan asko

- **Erref:** BGO-004/017
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Berangora joan zen eskolara, baina askotan baserriko lanetarako geratzen zen etxean; esate baterako iturreko aritzeko (idien aurrean). Gau eskolan beste urte bi edo egin zituen eta gero soldadutzara. Itzuli eta fabrikan hasi zen; laster joan zen Ameriketara. Denbora gutxi egon zen han; Euskal Herrira etorri eta eta harakin hasi zen; ia berrogei urtean aritu da horretan.

14. Ia berrogei urte harakin

- **Erref:** BGO-004/018
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ameriketan irabazitakoarekin lokala erosi zuen eta han zabaldu zuen harategia. Lagun batekin eta bere kontura ikasi zuen ofizioa. Antzinako andrek denbora gehiago zutenez, haragi gehiago erosten zuten, ez garestiena.

15. Janari prestatua errazago saltzen da

- **Erref:** BGO-004/019
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Janari prestatuak saltzen dira orain. Horretan aritzen da Tomasen lagun bat. Harakinaren irtenbidea izan da janari prestatua saltzea. Bikoteetan biek kanpoan lan egiten dutenean, ez dute astirik sukaldarako.

16. Danantzako igual

- **Erref:** BGO-004/020
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:31:53. **Bukatu:** 00:33:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bikoteko biek lan egiteak asko laguntzen du. Soldatak jaistea "lotsagarritasuna" (lotsagarria) da. Emakumeak ez dira inuzenteak eta laster helduko da berdintasuna. Kirolean ere ez dago berdintasunik.

17. Lan berdin eginez gero, berdin ordaindu

- **Erref:** BGO-004/021
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:33:24. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaixotasuna dela eta, harategiko lana emazteak egiten du. Oro har, fisikoki emakumeak indar gutxiago du, baina ez beti. Emakumeen lanerako gaitasuna batzuetan handiagoa izaten da; gizonak ere ez dute denek berdin lan egiten.

18. Gogor beharrean

- **Erref:** BGO-004/022
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:35:37. **Bukatu:** 00:37:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Harategia zabaldu zuenean, lan asko egin zuen aurrera egiteko. Baserrian ere egun guztiko lana egoten da. Gazterik ohitu behar da beharrera. Orain ez dago lanik gazteentzat, eta etorkizun iluna ikusten du Tomasek.

19. Portugaletera ortuariak saltzera

- **Erref:** BGO-004/023
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:37:24. **Bukatu:** 00:39:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian, soroko lanaz gain, bendejak ematen du lan handia. Gurasoek Portugaletera joaten ziren astoan, ortuariak saltzera (bendeja). Ganaduarekin diru gehiago ateratzen da. Fabriketakoak ere ez ziren hobeto bizi. Franco hilda, denak hobeto. Aberatsak beti aberasten eta hobeto.

20. Zerbezerako garagarra pentsurik onena

- **Erref:** BGO-004/024
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:43:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganaduarentzako pentsua zen: edo arto irina, edo arbi mamia eta irina, "torta" izeneko batzuk eta prentsatako garagarra (garagardo-fabrikakoa). Hasieran gutxik erosten zuten eta merkea zen, baina kontsumoa handitu zenean garestitu egin zen eta ez zen heltzen abeltzain guztientzat. Garestiagoa izanda ere, onena zen, baina nahikoa ez zegoenez, ganaduaren esne produkzioari kalte egiten zion jan aldaketak.

21. Baserrian astegun eta jaiegun lanean

- **Erref:** BGO-004/025
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:43:41. **Bukatu:** 00:46:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gurasoak baserri zaleak izan ziren, baina Tomasek beti pentsatu du gauzak errazago egin behar zirela. Aitak zuzeneko salmenta errentagarriago ikusten zuen, baina lan egiteko modu hori oso lotua zen, astegun eta jaiegun. Berango guztian baserritar bat edo baino ez da geratu. Kooperatiba antzera, txandaka lanean egin daiteke lan,;hori izan liteke irtenbidea.

22. Nekazari gazteei lagundu egin behar die gobernuak

- **Erref:** BGO-004/026
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:46:01. **Bukatu:** 00:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Euskal Herriko janaria kanpotik dator. Berak ezagutu du inguru guztia ereinda, soro, baina orain ez. Gernika aldean soro gehiago dago. Baserriak gobernuaren laguntza behar du, eta prestatu egin behar dira gazteak kooperatibak sortu eta lan egiteko nekazaritzan.

23. Oinez toki guztietara

- **Erref:** BGO-004/027
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:52:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Antzinako bizimodua tristemena zen. Ganadua erosteko tratua diru barik egiten zen. Batzuetan azokan, beste batzuetan tratanteari. Azkenetan Torrelavegan. Aita oinez joaten zen ferietara. Behin Gordexolatik etorri zen oinez, bera eta ganadua biak errenka. Oso berandu hasi ziren kamioiak.

24. Harategiko okela ingurukoa zen hasieran, azkenetan kanpokoa

- **Erref:** BGO-004/028
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:52:10. **Bukatu:** 00:53:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Harategirako jeneroa inguruan erosten zuen; gero tratanteari; azkenean kanpotik etortzen zen kamioietan.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com